



Nik, zure bi adibideak, honela euskaratuko nituzke:

Para no estar privados de provisiones durante más tiempo

- Jangaiez gabeturik luzarago ez egoteko.

Para entretenerte agradablemente todo el mayor tiempo posible

- Ahalik eta luzaroenik zu atseginez entretenitzeko.

Beraz, nik “luzarago” hitzaren aldeko hautua egingo nuke.

Beste adibide batzuk:

Nire esku dagoen guztia egingo dut, ahalik eta luzaroenik iraun dezan.

Nire esku dagoen guztia egingo dut, ahalik eta luzaroen iraun dezan.

Bestalde, “luze” hitzak “denbora” hitza eskatzen du, denborazko zentzua hartuko badu.

Adibideak:

“Denbora luzez bizi izan ginen han”,

“Han denbora luzeagoa igaro genuen, beste leku hartan baino”.

“Hantxe pasatu genuen denboraldirik / boladarik luzeena”

Ea honek laguntzen dizun. Agur.

Beraz:

diu: luzaz, luzaro, largo tiempo

diutius: luzarago, denbora luzeagoz, durante más tiempo

diutissime: luzaroen(ik), ahalik eta denborarik luzeena, el mayor tiempo posible